


Bizkaitarrei Bizkaieraz

**ZER**

386n. zenbakia • 2012 Urrilla



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)  
[info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)

# Galizia aldetik txangolari V



Ipuin sariketa  
Umea eta aztie



Bilboko Edergarriak II.

# Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

## 2012-2013 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 45. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 8an

### 45. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 8 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK**  
**BILBAO BIZKAIA KUTXA**  
**2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**  
**Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.**  
**Ez dozu ezer be idatzi bear.**  
**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.**  
**Eskerrik asko!**

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila  
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com



# BILBOKO EDERGARRIAK II.

## II. FELIPE 'REN AUTS OPILAK

Felipe II Polvorioa. Goxoki bikain onen jatorria aurkitu daiteke espaniar errege entzutesuena bizi zan mendean. Esan oi da Benavente Kondeak Felipe IIren emazte Isabel de Valoiseri eskeñitakoa oparia dala.



## IBANEZ 'EN TURROIGINTZA.

1860an Migel Jauna Jijona erritik Bilbora etorri zan ta Bidebarrietako 7 ta 9 ko zenbakian kokatu 1919tik ezkeroz bere familiko Eladio Ibañezek darama. Gabonetako etekiñen denda biurtu da bilbotar askorentzat.



## THATE 'N TXARRIKI DENDA.

XX gizaldi asieran Herman Thatek zabaldu eban Bilbon berak atonduten ebazan txarrikiak saltzeko. Asieran Hurtado de Amezagan egoan. Gar egun Colon de Larreategin darrai.



## TXOBIL~TXOKOLATEAK.

CHOBIL. CHOCOLATES BILBAINOS, Tiboli kalean sortu zan 1920an. José Antonio Lendakariaren familiartekoarena zan. Txokolate tabletak guztiz goxoak ziran, agian amerikar kolakaogaz nastuta egozalako.



## TXIKILIN 'EN OPILLAK.

1907.04.7an Isasa ta Artiachek galletak egin ta saltzeko lantoki bat eraiki eban García Salazar kallean. 1947an egunero saltzen ziran galletak 18.000 kilo osatzen eben. 1983ko udaldiezkeroz Deustuko Riberatik Orozkora aldatu zan.



## ERRUSIA 'KO OPIL~GOSOA.

Parisen Alejandro Errusiako Zar zanaren omezez egindako bazkariaren azkenaldera, postre lez txundituta itxi ei zitun bazkadarrak almendrazko gurifnez osaturiko goxoki barri onek



## EME 'REN IRU~ERTZEKOAK.

Eleuterio Aznarezek sortu eban 1959an Bar-Jate-txe EME deritzona. Sekulako arrakasta lortu eban Triangulo EME izen ospetsuak. Ogi artesau, York jamoia, mayonesa ta ta ixilleko saltsagaz landuten eban.

## KILKERRAK.

“El Grillo” len banderilla ta orain pintxo lez eza-gutua da. Ez dakigu zein dan bere jatorria. Alan da be osagai errazekoa da: letxuga (txirtxirren janaria) tipula, ta patata, oliba olioaz onduta.



## TXISTOR BEREBILLA.

Txakurtxu beroak saltxitxa biren laguntza eskatzen dauz. Olantxe jokatu eban urte askotan Pedro Abajos del Rio jaunak. Pedro ta bere SALCHICHAUTO guztiz ezagunak ziran inguruko Institutoetako ikasle eta Operazaleen artean.



## ARROZAREN OPIL~GOSOA.

Arrozpastela euskeraz diñoguna, Filipinasetik ekarri ei eban gure itsagizon batek. Guztiz ondo dator kafea artzeko orduan, bai goxetan ta bai arratsaldetan.



## SANTIAGITO.

San Blas etako malbabezko gozokia bikañetarikoa dogu. Irureun urte izango ditu asi zala eta bere lengo egituraren darrai gaur egun be: azukrea, malbabezko ta fruturen klareaz.



## KAROLINA GOZOKIAK.

Goxoki ezaguna da. Bilbotar batek bere alaba jatun eskasa bizkortuteko asmatu ei eban. Ojaldre tartaren gañean zabaldu, merenge krema-gaz lagundu, ta arrautzeko aletxo dira bere osagaiak. Alaba bizkortu ba zan, ez pazan, erritarrentzat apartekoa gertatu zan.





## GURINA 'REN OPILLA.

Opiltxu bat erdibitu, ta erdien gurin apur bat ipiñi. Ori da bilbotar usaña artzeko modua.



## ARRIKIBARKO ZOROA.

Arrikibarko Plazan jarten zan andratxu bat betiko ezarlekuan. Josten beti ta beti leku jakin batera begira. Amore gai galdutako batengana, bear bada.



## ZATO TA ZAGI EGILLEAK.

Alondigako ardao-a erroteko upel asko bear zala ta bota ta zagiak egiten asi ziran Iparragirre ta Fz. del Campo kaleetan. Auntzen larrua erabilten zan bape zatikatu eta loitu barik.



## ARDANDEGIA.

Ricardo Bastidak eraiki eban La Alhondiga 1905tik 1909 urte bitartean. Irurogei (60) urtez egon zan ardao-gordeleku lez. Ogei urte atek itxita eginda, gaur egun jendearen asialdi ta kulturgintzarako prestatuta ikusi leike.



## URDINEZKO BUS-TXIKERRA.

1960ko amaieran sekulako aurrerapen lortu eban Bilbok, El Azulito deritxon errigarraioa kalera-tuaz. Autobus barriak erosoago ibiltzen ziran kale estuetatik zear. Erabiltzaleek, ordea, konfort ohea nabaritzen eben jarleku barri bigunekaz.



## TRANBIA.

Bilbo ta Las Arenas arteko bidean lenengoz asi zana, zaldiekaz eroanda ibiltzen zan. "Paloma" izenez zan ezagutua. Geroago "tximistindarragaz (eletrizidadeagaz) mugituten zan. Gaur egun itxura barrienagaz atonduta ikusi leike.



## AIDE ARGINDARREKO BUS'AK.

Estatu osoan Bilbok erakutsi eban lenengoz garrario mota au. Santiagotik Misericordiarano egiten eban bere joanetorria. Ogeiraño ko kolore gorridun taldea ikusi eikean aldikada baten. Pisu bikoak, Pegaso motordunak ziran.



## BILBAOKO URDIÑ MARGOKIA.

Ezta itxasuraren urdintasuna, ez eta zeruarena Kolorre bizi ta gardena da. Kobalto apur bat, añil pitin bat, Titanic zuria batu ta eioa, ta Bilboko urdiña eskuratu dozu.





## BILBAO 'KO IKURRIÑA.

Bilbo Itxas Eskualdekoa legez onartu eban Bilboko Udaletxeak 1895en urtean.



## ATHLETIC ELKARTASUNA.

Futbol kirol sallean, iru talde dira lenengo maillatik berantza egin eztabenak. Iru orrein artekoa da Bilbao Atletik taldea.




## ASTE NAGUSIA.

1987 ostetik ospatzen da. Konparsen eta Udaletxe artean antolatzen da. Pregoia aldarrikatu ta Txupinazoa jaurtiteko Teatro Arriagako balkoia aukeratzen da.



**MUNETXEK EUSKERATUA**  
*BIL. 2012.02.10*  
*Udaletxeke erakusketatik artuta*








# Bertsolari

## gazteen sariketa



“Que será, será, whatever wil be será” entzuten da.

- Edozein gauza gerta litekela esanez.
- Soiñu probak egiteko euskal doiñu tradizionalak, zerbitzariak edariak prestatzen, bertsolari gaztetxoak agurtzen asi.
- Ikusleak kanpoan itxaroten.
- Sariketak, taldeak bitan banatzen dira.
- 18 urte baiño gitxiagoak, eta nagoziak 18/24 urte bitartekoak.
- Aurten finalera, Lea-Artibai eta IparUribe eldu dira, azken bi urteetan lez.
- Errebantxa gogoak argiak dira.
- Zortziko txikietako gaiek naikoa barretarak emon eben.
- Aisa Intxausti, esan eban:

“ Dakiauen ez indartsu, sutuak garala  
Markiñako saionan kanta gendun ala  
Kantatokira eldu gara bereala

Ta jarraitzen badogu oin arte bezela  
Lea-Artibaierena da gaurko finala.

-Inazio Vidal bere ez zan urrun geratu.

Orain jarri naiz emen auri begira  
Kantatxeko badute beraiek dizdira  
Baiña gu ez gara, ez gara ta tira!  
Gu baiño obeak aukeratu ez dira.

-Zortziko txikietako gaiek, onela eskatzen dau:

-Bilbon parrandan egonda, despistatu, azken trenan galdu  
eta ez dute nola eldu etxera.

Batek gurasoak deitu nai ditu eta besteak parrandan jarraitu.

Ego semeak komuna garbitu bear izan, eta amaitu bezain  
pronto aita sartu bizarra kentzera eta dana ederra jarri.

Nola ez, agur batek eman zion amaira leiari, Nerea Ibarzabalena, alegia.

“Aurtengo final bardiña, iaz erraz gendun irabazi.  
Ta algotarren bertsitan oindik ez dabe ondo ikasi.  
Luze jungo da orduan eta euren apurua.

Naiko neke galarazi

Obe genuke ointxe danetik

Sariak banatzen asi

Obe genuke ointxe danetik


Sariak banatzen asi.

**Agustin arrien**

*Bilbo udaleko errebistan idatzita  
Janire Mendietak.- zati bat artuta*

# Umea eta Aztie

Ipuin Sariketako 5. Saria



Eritetxe batean ume bat gaixotasun larria eukana.

Egia esan, osatu egin gura eban, eta ori dala eta oso pozik jartzen zan bere adiskideak, azti on batek, ikustaldi egiten eutsanean.

Aztie oso ezkutuzkoa zan eta beti on egiten eban gustora, lagunen oiñazea arintzeko alegiñak eginez.

Beti ebilen urdinez jantzita, eta baeritxona margo orrek begitaziñoa eta itxaropena adierazten ebala.

Orekatu-orekatua eukan izakera eta ez ebazan inoiz be azaltzen bere aztikeriaren isilpekoak.

Bere izate alaia beti elarazten eutson umeri eta orrek ondo sentitzen ebazan maitasuna eta indarra Azti adiskidearen aztikeriaren bidez.

Aztiak umeari azaldu oi eutson zelan laguntzen gaituen aztikeria bizitzan zear beti, eta orren bitartez, zelan ikasi daikegun zoriontsuagoak izaten.

Oso pentsaera baikorra eukan beti eta umeari irakasten eutson zuzenean, umeak poza eta maitasuna sentitzen eban Azti adiskidearen aldetik.

Edonoz eusten eutsen la-saitasunari eta barruko pakeari, eta ba ekian bere irakaspenik onen barri emoten umeari, umeak, aldi berean, miretsi egiten eban bere maisua, eta oso pozik sentitzen zan emoten eutsozan aolku baliotsuekin.

Aztiak beti ikustaldi bat egiten eban umea eguneko ordu berean eta zoriontsua izateko aolkuak zeatz-meatz azaltzen



eutsozan, beste ume gaixo batzuekin be partekatu-  
tuko bizipen eta ikaspenetan artuak ebazan zenbait  
adibideren bidez, izan be, ume oriek guztiek obra  
egin eben euren gaixotasun egoeran adiskidearen  
ezkutukoak aalmen sendatzaileari esker.

Egia esan, umeak erabat miresten eban aztie eta  
galdere interesgarriak egiten eutsozan sarritan.  
Itaun oritariko batzuei, barriz, gatx erantzuten  
eutsen esperientziadun pertsonaiaren jakituria-rik  
ez eukien lagun arruntek.

Aztie uri polit polit batean bizi zan eta gustora  
aurketzen aztikeri-jaialdira. Ospakizun ori udetan  
egiten zan eta bertan artzen eben parte azti bat-  
zuek ludiko ainbat lekutatik oi etozanak.

Aztiak trebetasuna eukan bere eskuetan eta arret-  
az erreparatzen eutsoen gaitasun orri ikusle aditu  
eta erne askok.

Beraren maitasuna, buru belarri aritzea eta adis-  
kidetasuna ziran nortasun atsegin baten isla.

Ez ebazan inoiz be agertzen bere aztikeriaren  
isilpekoak, eta ikusleen azpikeri eta ikusmin eutsi  
egiten eutsen.

Aztie lagun alaia zan benetan eta beti egiten ebazan  
alegiñak umea adore eta pozteko xedez.

Umeak gorputz eritasun bat eukan, eta adiskidea  
etorrita beti obetu egiten zan eta onek ez eban

inoiz ixten gaixoetxe umearen irribarre lortu arte.

Apurka apurka, aztia oartuz joan zan umearen  
pentsakera sakonaz eta bereala konturatu zelan  
garaitzen eban ikasle aurreratutak gorputz-gaixo-  
tasuna bere buruzko gaitasun psikologiko andiei  
esker.

Umearen gurasoek, arin nabaritu eben obekuntza  
semearen eboluzioan eta orretaz arrotu ziran asko,  
baita aztie adiskikerik onena izateaz be.

Eritetxeko osagileak egunero oartzen ziran obe-  
kuntzaz eta ez zeukatzen ondo ulertzerik umeak  
emona eutsen poztasun itzela, izan be, uneoro  
erakusten eban alaitasun andia eta bizitzeko gogo-  
a.

Umeak gauza pertsonal asko lortu ebazan eta las-  
ter nabarmendu zan balioen ezkuntzan.

Orren arira, irabazi egin eban gurasoen, senide  
guztien eta Azti adiskiderik andienaren  
maitasuna.

Alfonso Ezkurdia





# Galizia aldetik txangolari (5)

2.011n Bagillaren 9tik 2.011n Bagillaren 16ra ADIÑEKOAKIN

## BIDAIAREN TXANGO EGUNAK.

### 2.011n Bagillaren 13an.

7retan jagi giñan, garbitu ta gosaria artuta 9retan berebilbusera igonda Bigoko Uria ikusteko.

Bigoko ugaldea, beste iru kresal obaiaren Egoaldean dago, Bigoko Uriak ortik artuta beren izena.

Bigo, itxasora begira bizi da, beren salerosle, arrantzale eta Atlantik-aruntzko edo Atlantik-andiko portugaz.

Bigoko ugalde<sup>(1)</sup> onek, Arosako kresal obaiarena<sup>(2)</sup> baiño txikerragoa da, urak baiña, askoz sakonagoak, sarrera Zies mitozko ta berezko zuaizpe lez adierazpenduta dagozan ugarteagaitik zainduta, eta bere itxasbazterrak, ondardi ta erri-poli askorekin edertuta.

Daukazan erriak Baiona ur-golko erri izenetik asita, Nigran, Kangas, eta Moaña.

Eta ur-bazter<sup>(3)</sup> biak urbiltzen diran Rande itsas estuan oroigailu bat dago, Olandar ta Ingelesaren aurkako itxas borrokan urperatu ziran 28 espainar itxasontzi andiagaitik, eroaten eben urre, zillarra eta balio andiko gurrakaz olandar eta Ingelesari ez

emotearren. Gaur zubi andi ta eder bategaz alkar-tzen dira urbazter biak.

Azkenean ostera zabaltzen da ualdeko itxasori San Simonen ur-golkoa sortuta, eta bere erdian kokatuta dago San Simonen ugarte.

Ortik aurrerako itxasbazterretik Billaboa, Sanpayoren erdimendeko zubia Napoleonen aurkako borrokan ospe andia artu ebana, Arkade ostra maxkur zaleen langaiakaz, Souto Nagusia bere erdiaroko gazteluagaz, eta Redondelako Uria dagoz.

Bigok, 109 Km.karratuak daukaz eta 1.996ko autarki erroldan 286.774 biztanle zenbakituta, Pontebedrako lurraldearen Udala da, ta Tui Uriaren gotzai barrutikoa.

Erdi ugarte edo peninsula onek daukazan arrantza-leen porturik garrantzizkoena da, eta munduaren portu maillan seigarrena, arrain ezbaridiñak latontziratzeko lantegi geien daukozenak, ikas maillan arlo geienetako ikastetxeak Santiagoko ikastetxe nagusiaren menpean, eta Kastroko mendi gaiñean dauan gazteluaren zainpean dago eta Galiziako erri guztietatik, bera da geien zabaldu ta ugaritu dana.

(1)Ugalde = ria. (2) Kresal-obai = ria. (3) Ur-bazter = ribera.



Gaztelu au, birritan erasotu eban Drake itxas lasterkariak, bata 1.585an eta bestea 1.589an.

1.702an, eta oraindiño espainiarrak ondoriozko guda gogorrean egon zirala, Bigoko erri aurrean borrokatu ziran “franko espainola ta anglo olandar” guda ontzitaldeak, eta anglo olandarrak garaille urten ebelako, espainiarrak itxasperatu egin ebazan euren 40 ontzi andietatik 28 ontzi, urre gorri eta zillarrezko trozkoak<sup>(1)</sup> eroaten ebezanak, anglo olandarrai ez emotearren.

Gaur egun eta erriaren zabalkundea andia izan dalako, len albo baten egon zan Kastroko mendia, gaur Bigoko Uriaren erdian kokatuta dago.

Espainar enparantzatik Bigoko Uriaren barrura sartu gintzazanean, Olbeirak egindako zaldiaren oroigarri ederra aurrea ikusi genduna, izan zan.

Badaukaz beste berezko ikustoki ta ikusi leikezan gauza ederrak be, “Monte do Castro” beren kokamenagaitik antziñean keltiar bizi lekua, eta gero gudatarako ibili zan mendia, Uri zarrean “Mercado da Pedra”, zuzentzaille edo aitzindariaren mendia beren Edurrezko Ama Birjiñaren baselizagaz, eta Madroaren mendia bere Galizian bakarra dan abere-baratz<sup>(2)</sup> edo ta lizetegiagaz<sup>(3)</sup>.

Bere Uriaren serbitzuko ibilbide artean, erriarteko egazkin zelaia dauka, tren edo tximist gurdia amaierazko geltokia be bai, eta berebil edo autobidearen sare andi ta zabala Portugalegaz, Ourense, eta Gaztelaren goizabalagaz arremonduteko, eta ordaindu bear dan berebilbide ederra Pontebedra, Konpostelako Santiago, ta A Koruñako lurraldeakaz urreratuteko.

Bigoko lurraldearen zabaltasunean gaur daukazan, itxas ontziren lantegi, arraiñ ta aragia zezinatzeke, ale edo sagar-ale ta ortuariak iraun egiteko edo ta iraun dagien lantegiak, labe ta burniolakaz, “Pescanova” edo ta “Citroen”eko<sup>(4)</sup> lantegi andiak bezala, arro iraun leike esaten, diru edo emonkortasunezko arloan, bera dala Galiziako su-gurdia<sup>(5)</sup>.

Merkataritzazko gauza guzti orreik agertzen dabe nabaritasun guztiagaz, aurrera begituta baiña “ze itxaropen dauka Nortasunbako erri batek?”. Euren artean eneban ikusten Keltiar edo ta Galiziar “Arimarik”.



(1) Trozkoak = *lingotes*. (2) Abel-baratz = *zoològiko*. (3) Iize-tegiagaz = *jardìn zoològiko*. (4) Zitroenek berak eta bere lantegi laguntzailleakaz, 15.000 langille baiño geiago daukaz. (5) Galiziaren su-gurdia = *la locomotora de Galicia*.



Galziarrak gaur, ez dabe lan egiten Nortasunaren elburuakin, diruaren elburuaz baiño, eta arlo orreitan PPkoak Santiagoren<sup>(1)</sup> espainiar maltzurrezko ikurragaz eta oraindiñokarren Kangaseko gotzain eleizan edo ta lekaidearen ikastetxe ederrean burdiñez eginda lotsa barik idatzita erakusten daben oroikarriakaz “Jose Antonio Primo de Ribera”ren<sup>(2)</sup> falanjista izendegiakaz diralako garaille. Noz arte?.

## Edestia.

Bigok, badauka bere bizitzaren izaerazko edestia, eta gogorra gañera, orain nire eskuetan ez daukadan. Orduko denboratan baiña, Baiona izendatu eben erregearen ezarleku lez, eta ardurazko ordezkotzan beti geratu zan bigarren, arik eta XVIIIIn gizaldian itzaz ontzi andiagoak egiten asi, eta itxasozko ur sakonagoak eskatzen asi ziran arte.

Orregaitik esaten dabe, berak daukan edestia, XIXko gizaldiaren asieratik gaur artekoa dala.

## Kanbados.

Bigo ikusita egun erdirantza urbiltzen gagozela, Adela gidariak Kanbados bere errira eroan ginduzan, Sanxenxoko Udalaren lurraldean, Albariño ardoa egiten daben “Pedreiraseko Ardantegi”ra, eta guri aurkeztuta orren ardolantegi edo ta kupeldegizateko euki eban antolamenduaren tresnagintza erakutsiko euskuna, prest geratu giñan ardo lantegi orrek euki ebazan aurrera bideakaz oartzeko.

Al gendun adikune guztiagaz entzun geuntzan ardolantegi orren antolagintza buruz aurkeztu euskun guztia, eta goiko gela batera igoteko agindu euskunean, mai andi baten atara euskuezan, eurak egiten ebazan iru ardo mota ezbaridiñak Albariñotik asita, gazta apur bategaz dastatu edo txestatzeko.

Pozik eta gozo artu genduzan adierazpendu eta atara euskuzan jan edariak, eta baten batek gura ba ebazan etxera eroan iru motaren ardo ezberdiñ areik, bertan eta iru bonbillentzat<sup>(3)</sup> eginda, ondo apaindutako kartoizko ontzietan saltzen ebazan.

(1) *Santiago cierra España ?*. (2) *Kangas-eko eleiz-ikastetxean = en la monumental colegiata y concatedral de Cangas*. (3) *Bonbil, botaxa, limera = botella*.



Gure ibilaldiko lurraldeetan, mastegi asko eraiñ eta lantzen dabizela euren ardoak egiteko ikusi genduzan, eta lan orreikaz erakusten dabe, itxaropen andiak daukiezala, egiten dabezan ardoakaz.

Eta arro egoteko be bada eurak esaten daben lez: “XIIIn gizalditik Salnes ibarreko lurak maatsakin landuten dira, eta mastegi orreik dira munduko ardo zuriaren artean oneneitariko bat emoten dauna, Kanbados Albariño ardozuri orren Uri nagusi daukala”.

Busera igon gendun gure ostaletxera joateko, eta bazkaldu ta gelan lo apur bat eginda ondoren, 4 1/2etan urten gendun Kanbadoseko inguruetara joateko.

Kanbados, Pontebdrako lurraldearen Udala eta Konpostelako Santiagoren gotzai barrutia da, eta Arousako ugaldeari begira bere 23Km. karratukaz 11.321 biztanle daukaz 1.980ko urtearen baiño ariñauko autarki erroldatik artuta.

Kanbadossek badauka beren kondaira Adalak esan euskun lez, eta kontu au esan eban.

“Deabruak, Jesusi tentaldira eroan ebenean esan eutson: Belauniko gur egiten ba nozu / ikusten dozun guztia emongo dautzut, Konbados, Fefiñans, eta Santo Tome izan ezik”.


Fefiñansek daukan garrantzi andiko enparantza, eta San Benitoren Eleiza ederrak ikustera joan giñan.


8rak eta laurenetan igon gendun belbilbusera ostaletxera joateko, eta afaldu ondoren, gelatara joan gintzazan lo egiteko.

## 2.011n Bagillaren 14an.

Egun orretan denbora geiago euki gendun lo egiteko, busaren ordua amarrak lauren gitxiagotan izan zalako.

Berebilbusera Tojako ugarte eta Ogrobe erdi ugar-teak ikustera joan giñela, Meko erria? aldatzen





goiezala Adelar esan euskun, abade txar bat il egin ebela erri orretan, eta erritarrak eriotz orregaitik iñor ez egian errudun egin, erritar guztiak agertu zirala errudun, eta iñor zigortu bage geratu zala eriotz ori.

Ogrobeko erdi ugartearen zubitik, bere osasungarriko urakaz ainbeste ur-etxe eukiteagaitik antziñatik ezagutzen dan Tojako ugartera joan giñan.

Ospe aundiko ugarteia izan bear izan zan ugarte ori, ondo apaindutako ainbat ur-etxe bata bestea baiño politagoak diranak dagozelako ugarte orretan.



Iru ostaletxe nagusiak daukaz, bost izar daukazan “Tojako Ostaletxe Andia”, beren jabetasunezko portu, igeritegi ta golf-era jolasteko zelaiarekin. Lau izar daukan “Lousoko Bizi-Ostaletxea”, eta “Bizitzeko Ur-Etxe Ostala”.

Batzartzeko eta Erakus toki lez etxe andi bat dauka, ezbardiñezko azokak, erriko eta erriarteko erakuspenak egiteko.

Ur-Etxe guztiak inguratzen dauan basalde ederbat be dauka, eta bieira mazkor azalakaz ondo apainduta daukan eleizea.



Tojako ugarteia, izen ezbardiñekaz deitzen eutsoen antziñatik: “Osagarrizko Ugarteia”, “Atsegiñezko Ugarteia”, eta “Usai Gozodunezko Ugarteia”.

Niretzat, berba gozo larregi ekanduzko arloetan, zuzentasunezkoak izateko.

Diruaren aipamenekotan, zeozer entzun neutson Adelari, inguru areitan Aberats asko egon zirala edo ta alako bat, mundu osoako aberats aundiena be bai, baiña eneban jaramon andirik egin, oartuta egon nintzalako, parabisu edo atsegiñezko baratz orren ostean zelako maltzur jokoa eroaten dabezan eskuiñ zale politikariak.

Galiziar edo Kelta demokratikoak noz konturatuko dira, euren nortasunezko ordezkartzaren zentzua-gaz jokatzen dabizela ezeren lotsa barik, Santiagoren ikurra siniskai edo siñis-egi lez euren elburu ipinita ?.



Santiagogaz lilluratu edo ta illundu egiten dautsoe galiziarrai, Jaungoikoak mundu oneri ipini eutson legeen agiritasun edo ikusgaitasuna, eta elitzake izan bear alan, Keltak edo ta galiziarrak, askatasu-





nezko demokrazian neurri andiak lortu ebezalako euren gizarteetan, Omo Sapiensek arrazoiaren ordezkio joku bizitzan asi bear izan ebenetik.

11 1/2etan amaitu gendun Tojako ugarteia ikusten, eta O Grobeko erdi Ugarte edo peninsularen portura aldatu gintzazan busekin, bertan 3n zenbakiagaz egon zan Pelegrin itsas ontzira igonda, Arousako kresal-obai edo ugalde eder orreitan, ur gaiñean ipinita daukiezan mazkelo<sup>(1)</sup> andietara joateko, gazte batek eskegita daukiezan sokak atara gindezan, guk bieira, muskillo edo muskulu, eta maskortegi edo ostraren azkuntzak ikusi dagiguzen.

Mazkelo edo batea guzti orreik ikusi ondoren, itsas ontzi orretan, ur-laño<sup>(2)</sup> edo ur-ats´ean egosita, aibat bider eta asetu arte atara euskuezan muskulu gozo orreik Ribero ardoagaz jan edateko.

Toja ugarteia eta O Grobe erdi ugarte zoragarri orreik agurtuta, ostaletxerantza joan giñan bazkaltzera, eta mai inguruko solasaldi alai ta gozo baten bazkaldu gendun, bide batez arratsaldea aske euki gendun lez, zer edo nora joateko antolak egiten.

Porto Nobo ikustera joan giñan arratsaldean, bide batez arraiñezko azokan eurak egiten dabazan norgeiagoko arrain saltzaroak ikusteko, eta bere ingurutik zer egoan ikusi ta zeozer artuta ango kafetegi baten Sanxenoko ostaletxera joan giñan afaltzera.

**Atutxatar Paul**  
**Zornotzan 2.011n Agorrillaren 9an**

(1) Mazkelo = bandejas grandes de madera. (2) Ur-laño, edo ur-ats´ean egosita = cocidos al vapor.

# Ikasten

# Euskaldun barrientzat

## Zazpi utsak



## Sudoku

	2	9				4	7	
				1				
3			6		9			2
2		5	7		8	6		9
	7						3	
4		6	3		1	5		7
8			5		7			1
				8				
	9	7				3	6	

8	9	3	4	2	1	7	6	5
5	6	7	8	9	2	1	7	6
4	5	6	7	8	9	2	1	7
1	2	3	4	5	6	7	8	9
7	8	9	1	2	3	4	5	6
2	3	4	5	6	7	8	9	1
9	7	1	2	5	6	8	3	4
6	1	9	7	4	8	6	1	9
3	5	4	6	7	9	1	8	2
7	6	8	4	1	2	9	5	3
1	2	9	8	3	5	4	7	6



# E u s k a l a s t e a



**Bilbao**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

2012-11-26.– PABLO ATUTXA

2012-11-27.– ERIKA URANGA

2012-11-28.– KLAUDIO BARROETA

2012-11-29.– ANGEL LARREA

2012-11-30.– PABLO ATUTXA

**ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK**

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2ª esk.

Ordua: Zazpiretan

**EUSKERAZALEAK**

## IPUIN SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariaketa iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearco dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urterillan.
- Sariak bost izango dira:

1. <sup>a</sup>	300 euro	4. <sup>a</sup>	120 euro
2. <sup>a</sup>	240 euro	5. <sup>a</sup>	60 euro
3. <sup>a</sup>	180 euro		
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

– **Mesedez bialdu CD edo disketea**

**EUSKERAZALEAK**

## ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:


..... tar .....

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela, an daukadan        zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “**ZER**”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Aita San Antonio  
Urkiolakoa, (Bis)  
askoren biotzeko  
santu debotua, ai, ai, ai!  
Askoren biotzeko  
santu debotua.

Askok egiten dio  
San Antoniori, (Bis)  
egun batean joan ta  
bestean etorri, ai, ai, ai,  
Egun batean joan ta  
bestean etorri.

**Urkiolako Santutegia**